

FUNTSEZKO BALIABIDEAK:

Enpresa ondo funtziona dezan, hainbat baliabide ditugu:

Horien artean, gure enpresa Unaiek Ibabe industrialdean duen lokalean kokatuko da. Bertan, wifia, gure ordenagailu propioak, gure konpainiako telefonoa eta lanerako behar ditugun tresna eta materialak ditugu. Hauek izango dira gure baliabide fisikoak.

Giza baliabide eta intelektuan, bazkide bakoitzak dituen ikasketak eta gaitasunak erabiliko ditugu:

- Moradek ingeneritza informatikoa du, beraz web gunea sortu dezake.
- Igorrek administrazioa eta finantzak ditu eta gure enpresaren finantzez arduratzen da.
- Unaiek ingeneritza mekanikoa edukita produktuaren funtzionamenduaz arduratzen da.
- Xabi Zarauz diseinatzen daki, beraz, eskuilaren diseinua egin dezake.
- Azkenik, Xabier Lazkanok hizkuntzen jabetza handia duenez, eta ondo hitz egiten dituenez, enpresaren harremanaz eta salmentaz arduratuko da.

Finantza baliabide bezala, bankuko mailegu bat izango dugu. Denbora aurrera joan ahala, lortzen ditugun diru sarrerekin ordainduko dugu, behar izanez gero, geure poltsikotik aterako dugu dirua.

